

PSIKOLOGIA FAKULTATEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2023



AURKIBIDEA

- 1. Aurkezpena**
- 2. Psikologia Fakultatearen misioa**
- 3. AMIA analisia**
 - **Ahuleziak**
 - **Indarrak**
 - **Mehatxuak**
 - **Aukerak**
- 4. Ikuspegia**
- 5. Balioak**
- 6. Estrategia**
- 7. AMIA analisia kudeaketa planeko ekintzekin gurutzatzea**
- 8. Hausnarketa estrategikorako taldea**

1. Aurkezpena

Dokumentu honetan Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Plan Estrategikoa jasotzen da, 2020-2023 aldikoa. Plan hau Fakultatearen gogoeta estrategikoaren emaitza da, eta gogoeta hori osatu duten etapen ondoren ateratako ondorioak biltzen ditu. Fakultateak 2023ra arte lortu beharreko helburuak jasotzen dira, baita jomuga horiek lortzeko beharrezkotzat jotzen diren estrategiak eta ekintzak ere. Fakultateko aurreko planen antzera, Unibertsitatearen ardatz estrategiko nagusiekin eta EHU-agenda 2030 egitasmoan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat dator.

Plan Estrategikoa Fakultatearen eta gizartearen hainbat kolektibo elkartu dituen prozesu parte hartzaile baten bidez egin da. Lehenengo fase batean, Fakultateak 2020an zuen egoeraren diagnostikoa egin zen, Fakultatearen barneko eta kanpoko hainbat iturritako datuak oinarri hartuta eta ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak (AMIA analisia) identifikatuta. Hauek dira iturriak: azken 4 urteetako kudeaketa-txostenak eta -planak, lehiaren zaintzako txostena, Lanbideren txostenak Psikologiako graduaren laneratzeari buruz, ikasleen inkestak, eta talde fokalak graduako azken mailetakoa ikasleekin, masterretako ikasleekin, praktika-zentroekin eta hainbat esparrutako kontratatzaile izan daitezkeenekin, irakasleak eta ikertzaileak (IIP, 2 ordezkari arlo bakoitzeko) eta administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZP). Campuseko errektoreordetzarekin eta errektoretza-taldearekin egindako bileretan jasotako informazioaz gain, EAEko Psikologiako ikastetxeak eta Espainiako Unibertsitateen Psikologia Dekanoen eta Dekanoen Konferentzia (EUPDK). Bigarren fasean, dekanotza taldeak, hauteskunde programan oinarrituta eta bultzatu nahi dituen balioetan arreta jarrita, Fakultatearen misioari eta 2023rako duen ikuspegiari buruzko gogoeta bat egin du. Jarraian, Planaren zirriborroa egin da, harekin lotutako ildo estrategikoa eta ekintzekin. Zirriborro hori ikastegiko Kalitate Batzordean aurkeztu zen; batzorde horretan ordezkariak dute sailek, gradu eta graduondoko irakaskuntza koordinazioko egiturak, ikasleek, irakasle-ikertzaileek (IIP) eta administrazio eta zerbitzuetako langileek (AZP). Batzorde horren proposamenak Planaren dokumentuan sartu ziren, eta, azkenean, Fakultateko Batzarrari igorri zitzaion, onar zezan.

2. Psikologia Fakultatearen misioa

Donostiako Psikologia Fakultatea UPV/EHUko ikastegi bat da, eta helburu du profesional kualifikatuak trebatzea eta Psikologiaren arloko ezagutza zientifikoa sortzea eta hedatzea, hori guztia banakoen zein gizartearen osasuna eta ongizatea hobetzeko.

Horretarako, Fakultateak graduako eta graduondoko prestakuntza programa bat eskaintzen du. Programak gizartearen beharrezkoen erantzuten die eta konpetentziak eskuratzeko irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu koordinatu batean oinarritzen da; horri esker, prestakuntza teoriko-praktiko sendoa ematen da Psikologiaren hainbat arlotan.

Hori guztia, kalitatezko produkzio zientifikoa duten ikertalde finkatueta eta kanpoko praktika espezializatuak egiteko aukera bermatzen duen erakunde sare batean oinarrituta; eta ondo prestatutako giza talde konprometituak bultzatuta, berrikuntza, pentsamendu askatasuna eta espiritu kritikoa, abiapuntu hartuta.

3. AMIA analisia

Honako honetan aurkezten den plana osatze aldera, dekanotza taldeak talde fokalak lideratu ditu irakasle-ikertzaileekin, AZPkoekin, ikasleekin, egresatuekin eta erakunde kolaboratzaileekin, fakultatearen ahulezia eta indarrak eta aldi horretarako identifikatu diren mehatxuak eta aukerak zehatz aztertuta.

	barnekoak	kanpokoak
negatibok	AHULEZIAK	MEHATXUAK
positiboak	INDARRAK	AUKERAK

Halaber, gehitu egin ziren irakasle-ikertzaileen, AZPkoen, ikasleen eta praktika tutoreen gogobetetze inkestetan, ikasleen irakasle-ikertzaileen irakaskuntza balioesteko egindako inkestetako emaitzetan, Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) adierazleen emaitzetan eta, erakunde akreditazioko prozesuan (2019) lortu diren emaitzetan antzemandako ahulezia eta indarrak.

Emaitza horiek guztiak aztertzearen ondorioz, honako analisi hau egin zen.

AHULEZIAK

Prestakuntza

1. Gradu eta Masterreko zenbait ikasketa plan berrikusi eta eguneratu egin behar dira.
2. Masterretan onartuak izateko profilak berrikusi egin behar dira.
3. Gradu titulazio bakarra daukagu.
4. Metodologia aktiboen erabilera hobetu daiteke.
5. Koordinazioa maila guztiak hobetu daitezke.
6. Etengabeko ebaluazio sistema hobetu daiteke.
7. Ingeleseko irakasgai gutxi eskaintzen dira.
8. Gradu praktiketarako plaza kopurua ez da egonkorra.
9. Master eta berezko tituluetakoko praktiketarako gero eta plaza gehiago behar dira.
10. Berezko tituluen eta prestakuntza osagarriaren eskaintza txikia da.
11. Mugikortasun hitzarmenen kalitatea hobetu daiteke.
12. Fakultatean sartu berri diren ikasleek graduari buruzko duten orientabidea eta igurikimenak hobetu egin behar dira.
13. Hautazko irakasgai gehiegi daude eta horrek irakaskuntza eskaintzaren

egonkortasunari eragiten dio.

14. Ikasleen artean igurikimen faltsuak (praktikei, masterretarako sarbideari eta laneratzeari dagokienez) sortzen dituzten ibilbide ez ofizialak (minorrak) ditugu.
15. Ikasle askok ez du bakarkako lana egiteko (adibidez, GRAL, Gradu Amaierako Lana) beharrezkoa den gaitasunik.

Pertsonak

16. Gutxi aintzatesten da IIPen eta AZPko langileen lana.
17. Aukera gutxi daude langileen arteko interakziorako.
18. IIP berriek graduaren eta Unibertsitatearen funtzionamenduari buruzko informazioa behar dute, bai eta lan sustapenerako aukerei buruzkoa ere.
19. IIPek etengabe prestatu eta eguneratu behar dute irakaskuntzarako tresnetan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKTak).

Gizartea

20. Fakultatean sortzen den ezagutzari ematen zaion ikusgarritasuna hobetu daiteke eta gehiago hedatu.
21. Ikasle egresatuekiko harremana txikia da.
22. Psikologiako elkargo ofizialekiko eta kanpoko profesionalekiko harremana txikia da.
23. Ikasleek eta langileek kontzientzia gutxi dute Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz (GJH).
24. Fakultateko ingurumen kudeaketa hobetu daiteke.

Kudeaketa

25. Koordinazio estrategikoa behar da sailen eta Dekanotzaren artean.
26. Barneko komunikazioa hobetu daiteke.
27. Ikasleen kontseiluekiko komunikazioa hobetu daiteke.
28. Ikasleekin komunikatzeko kanala hobeagoak aurkitu behar dira.
29. Webgunea berritu egin behar da eta edukia sailekin koordinatu.
30. Irakaskuntzarako graduako eta graduondoko ikasle kopurua aintzat hartuta Barriola ikasgelategiarekiko mendekotasun handia da, Fakultatean ikasgela gutxi daudelako.
31. Praktiken administrazio kudeaketa hobetu daiteke.
32. Hiru master ofizial gehitu direnez, kudeaketa lana nabarmen handitu da.
33. Kudeaketa akademikoko prozedurak berrikusi egin behar dira.
34. Ikasketa plana konplexua da eta horrek zaildu egiten du ordutegiak antolatzea.

INDARRAK

Prestakuntza

1. Psikologiako Graduaren eta Osasun Psikologia Orokorraren eskaintza erabat elebiduna da.
2. Psikologiako hainbat jakintza arlotan esperientzia zabala eta eguneratua duten IIPak.
3. Psikologia arloan ezagutza sortzen duten eta seiurteko ugari dituzten

- IIPak.
4. Irakaskuntzaren kalitatearekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa eta irakaskuntzari laguntzeko plataformen erabilera orokorra.
 5. Irakaskuntza koordinatzeko egitura.
 6. Errendimendu, arrakasta eta ebaluazio tasak.
 7. Ikasleek oso balorazio ona egiten dute IIPen irakaslanaz.
 8. Hirugarren hizkuntzan irakasteko IIP egiaztatuen kopuru handia da.
 9. English Friendly Course irakasgaien kopurua handitzen ari da.
 10. Nazioko eta nazioarteko mugikortasuna handia da (kanpotik datozenena zein kanpora doazenena).
 11. Praktika zentro ugari daude eta kalitate onekoak.
 12. Praktika zentroek ongi baloratzen dute graduako eta graduondoko ikasleen prestakuntza.

Pertsonak

13. Langile gehien inplikazioa eta lankidetzaren handia da.
14. IIPek presentzia handia dute komunikabideetan.
15. IIP eta AZPko langile berriei harrera egiteko plana.

Gizartea

16. Ikerketa eta transferentzia proiektuen kopurua handia da.
17. Garapenerako lankidetzaren praktikak.
18. Gizarte konpromisoa.
19. Fakultatearen irudi ona.

Kudeaketa

20. Graduondoko tituluen kalitatearen kudeaketan inplikaturako batzorde akademikoak.
21. Psikoplana.
22. Titulazio guztien kudeaketaren kalitatea bermatzen duen erakunde akreditazioa.
23. GPUntis eta WebUntis erabiltzen ditugu ordutegiak eta espazioak antolatzeko.
24. Fakultateko geletan eta instalazioetan ekipamendu egokia dugu.
25. Fakultatean baliabide informatikoen hornidura egokia da.
26. "Esker on, iradokizun, kexa eta erreklamazioen" kudeaketa (EIKE).

MEHATXUAK

1. Beste unibertsitate, fakultate eta titulazio batzuekin lehiatu beharra.
2. Beste unibertsitate eta erakunde pribatu batzuek graduondoko ikasketen eskaintza zabala dute.
3. Testuingurua aldakorra da, eta eragile berriak daude unibertsitateko hezkuntza birtualaren esparruan eta ingelesez.
4. Osasun Psikologia Orokorrean (OPO) prestakuntza behar duten eremuen kopurua gero eta handiagoa da, Psikologiako Graduaren eta beste master ofizial batzuen kaltetan.
5. Unibertsitate pribatuetan ordaindu egiten dira praktikak eta motibazio gutxi dago erakunde publikoetako praktiketako tutore izateko.
6. Psikologoaren lana ez dago araututa eta intrusismo laborala dago.
7. Irakaskuntzarako campuseko espazio komunak lehia gero eta handiagoa da.
8. Fakultatearen ohiko finantzaketa eta Campuseko baliabideak murriztu egin dira, krisi ekonomikoa dela eta.
9. Ikasgelaz kanpoko irakaskuntza ematera behartzen duten eta epe ertainean kudeaketa hausnartua eragozten duten larrialdi egoerak egon daitezke.

AUKERAK

1. Eskari handia duen Psikologiako Gradu erakargarria dugu.
2. Osasun Psikologia Orokorreko masterrerako eskaria handia da.
3. Graduak eta graduondoko lanbide profila berriak eskatzea, gidalerro profesional arautuak dituztenak.
4. Psikologiaren jarduketak esparru berriak.
5. Unibasq-en nazioartekotzearen aipamena lortzeko aukera dugu.
6. Epe ertain eta luzera osasun mentalen arloko profesionalen beharra dago, osasun larrialdiko egoerarekin lotutako arazoei erantzuteko.
7. UPV/EHUko webgunea berritzea.
8. Ikasleek gero eta prestakuntza hobea dute hizkuntza ez ofizialetan.
9. Gero eta mugikortasun programa eta ekintza gehiago daude, bai ikasteko, bai praktikak egiteko.
10. ENLIGHT partzuergoak baterako graduak eskaintzen ditu Europako unibertsitateekin.
11. Ikasleak, IIPak eta AZPko langileak gero eta kontzientziatuago daude GJHeekin.
12. Osasun larrialdiaren ondorioz, aldi normaletan erabiltzen jarraitu ahal izango diren tresnak eta ekipamenduak egokitu behar izan dira.
13. Osasun larrialdiak agerian jarri du Psikologiaren eta ongizate psikologiko eta psikosozialaren garrantzia.
14. Osasun arlorako finantzaketa (Europakoa, estatukoa eta autonomia mailakoa) areagotzeko aukera dago.

4. Ikuspegia

Ikuspegiak barne hartzen ditu plan honen iraupen aldian fakultateak lortu nahi dituen emaitzak eta fakultateak izan nahi duen irudia ikasleen, komunitate zientifikoaren, fakultatearen gizarte sarearen (fakultatean lan egiten edo egin duten, ikasten edo ikasi duten pertsonak), enplegu emaileen, UPV/EHUko gainerako ikastegien, beste unibertsitate batzuen eta gizartearen aurrean.

Berrikusi den ikastegiko misioa eta egin den AMIA analisia abiapuntutzat hartuta, hausnarketa taldeak fakultatearen ikuspegiari dagokion helburu nagusia zehaztu du: gure tituludunen ehuneko handi bat psikologiaren arloan lanean aritzea. Helburu hori lortzeko, honako ikuspegi lerro hauek zehaztu ditu:

- Psikologia Fakultatearen asmoa da bere ikasleek ikastegia bikaintasun zentrotzat har dezatela bertan ematen den prestakuntza akademikoaren kalitateagatik eta ikastegiak ikasleengan etengabeko prestakuntza, arazoak konpontzeko gaitasuna eta ekimena sustatzeko egiten duen lanagatik.
- Psikologia Fakultatearen asmoa da erreferente zientifiko, akademiko eta soziala eta lan arloko erreferentea izatea bere gizarte sarearen zati batentzat, enplegu emaileentzat eta gizartearentzat.
- Psikologia Fakultatearen asmoa da fakultate ezaguna izatea ikastegiak daukan gizarte erantzukizunagatik eta garapen jasangarriagatik.
- Psikologia Fakultatearen asmoa da UPV/EHUn eta beste unibertsitate batzuetan erreferente izatea ikastegiaren kudeaketaren bikaintasunagatik, berrikuntzagatik eta etengabeko hobekuntzarako espirtuagatik.

5. Balioak

Hauek dira Psikologia Fakultatea osatzen dugun pertsonon zeregina gidatzen duten balioak:

- Zerbitzu publikoko bokazioa.
- Pentsamendu askatasuna.
- Espiritu kritikoa.
- Konpromiso etikoa.
- Unibertsitate zereginaren bikaintasunarekiko konpromisoa (irakaskuntza, ikerketa, kudeaketa).
- Elkarrekiko konfiantza eta tolerantzia.
- Pertsonen, Fakultateaz eta Unibertsitateaz arduratzea.
- Gizarte konpromisoa.
- Garapen jasangarriarekiko konpromisoa.

6. ESTRATEGIA

Ikuspegiarekin lotutako helburuak gauzatzeko, lau ildo estrategiko definitu dira, hainbat helburu eta ekintza estrategikotan banatuta daudenak. Horrez gain, 2023rako ikuspegiari dagozkion helburuak lortzeko gauzatuko diren urteko Kudeaketa Planarekin lotutako ekintzak zehaztu dira.

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANENKO EKINTZAK	EGITEKO DATA
PRESTAKUNTZA	Fakultatearen prestakuntza eskaintza egokitzea gizartearen beharrian aldakorretara eta lege esparru berrietara.	Psikologiako Gradu ikasketa plana berrikustea eta eguneratzea.	1. Gradu ikasketa plana berrikusteko batzorde bat sortzea.	21-22 ikasturtea
			2. Hautazko irakasgaiak aldatzea, sortzea eta ezabatzea.	21-22 ikasturtea
			3. Irakaskuntza bektoreak, gaiak eta konpetentzien ebaluazioa berrikustea.	Urtero
		PGTEK eta EPEP masterretako titulu ikasketa plana berrikustea eta eguneratzea.	4. PGTEK eta EPEP masterretako ikasketa plana berrikusteko batzorde bat sortzea.	22-23 ikasturtea
			5. Ministerioaren araudi eta aldaketa berriei erantzutea.	Urtero
			Graduko titulu berrien beharrian aztertzea.	6. Titulu berrien beharrian aztertzea.
	7. Titulu berriak proposatzea, egokitzea joz gero.	21-22 ikasturtea		
	Lanbidea gauzatzera eta ikertzera bideratutako graduondoko prestakuntza sustatzea.	Berezko titulu edo master ofizial berriak eskaintzeko beharra aztertzea.	8. Berezko titulu edo master ofizial berriak eskaintzeko beharra aztertzea.	21-22 ikasturtea
			9. Berezko titulu berriak proposatzea, egokitzea joz gero.	21-22 ikasturtea

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
PRESTAKUNTZA	Praktiken katalogo zabala izatea ikasleak gizartearekin konektatzeko eta enplegarritasuna bultzatzeko.	Graduko eta graduondoko praktiketako hitzarmenen kopurua handitzea.	10. Graduko eta graduondoko curriculumeko praktikak egiteko arloak dibertsifikatzen eta handitzen jarraitzea.	20-21 ikasturtea
			11. Tutore izateko irizpideak berrikustea eta eguneratzea.	20-21 ikasturtea
	Hezkuntza eredu berritzailea sustatzea.	Graduko eta graduondoko borondatezko praktikak erraztea.	12. Graduko eta graduondoko borondatezko praktikak erraztea.	Urtero
		IIPek hezkuntza berrikuntzarako proiektuetan parte hartzea sustatzea.	13. Hezkuntza berrikuntzarako proiektuekin lotutako deialdiak zabaltzea.	Urtero
	Ikastegia nazioartekotzen jarraitzea.	Irakasleak irakaskuntzarako tresna berrien erabileran trebatzea erraztea.	14. Tutoretzak sortzea, eta prestakuntza ikastaroak antolatzea eta hedatzea irakaskuntzarako sortzen diren tresna berriei buruz.	Urtero
		Ikasle, IIP eta AZPko langileen mugikortasuna erraztea.	15. Mugikortasunari buruzko informazioa hobetzea graduko bigarren mailako ikasleentzat.	Urtero
			16. Irteten diren mugikortasun ikasleei helmugan data ofizialetan azterketak egiteko aukera erraztea.	Urtero
			17. Mugikortasun hitzarmenen katalogoa berrikustea, eguneratzea eta hobetzea.	Urtero
			18. IIPei eta AZPko langileei mugikortasun aukeren berri ematea.	Urtero
	Ingeleseko irakasgaien eskaintza sustatzea.	19. Ingeleseko irakasgaien eskaintza sustatzea graduko maila guztietan eta graduondokoetan.	Urtero	

ARDATZA	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
PRESTAKUNTZA	Graduen eta graduondokoen berri ematea ikasleei.	Ikasleek Fakultateko titulazioei buruzko informazio eta orientazio jardueretan parte har dezaten sustatzea.	20. UPV/EHUko unibertsitate aurreko orientazio jardueretan aktiboki parte hartzen jarraitzea: OrientaTU, unibertsitate orientazioko azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak.	Urtero
			21. Fakultatearen Tutoretza Planeko (TP) jarduerekin jarraitzea graduan.	Urtero
			22. Gure graduondokoak hedatzen jarraitzea Master eguna jardunaldietan.	Urtero
	Gure egresatuen laneratzea erraztea.	Lan irteerei eta enplegua bilatzeari buruzko informazioa ematea.	23. Psikologiako lan irteerei buruzko jardunaldiak antolatzea, elkargo profesionalekin eta gure fakultateko ikasle egresatuekin lankidetzan.	Urtero
			24. Ikasleei enplegua bilatzeko baliabideei buruzko informazioa ematea, baita eskaintzen den beste ikastaro batzuei buruzkoa ere.	Urtero
		Ekiteko prestakuntza sustatzea.	25. Gipuzkoako Campuseko ekintzailatzat programetako ikasleen parte hartzea sustatzea.	Urtero
			26. Ekiteko prestakuntza ematea.	22-23 ikasturtea
			27. Egresatuek Eusko Jaurlaritzaren lan mundurako trantsizio beketan parte har dezaten sustatzea eta lortutako bekak izapidetzea.	Urtero
Egresatuek enplegua sustatzeko ekimenetan parte har dezaten sustatzea.				

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
PERTSONAK	Langileen aintzatespena bultzatzea.	Langileak aintzatestea euren erretiroagatik eta lanean emandako 25 urteengatik	28. Langileak aintzatestea euren erretiroagatik eta lanean emandako 25 urteengatik.	Bi urtean behin
		Langileen lan ibilbidea ikusaraztea.	29. Webgunean langileen curriculum mantendu eta eguneratu dadin sustatzea.	Urtero
			30. Barne buletinaren bidez langileekin lotutako albisteak hedatzea.	Hiru hilean behin
	Fakultateko langileen lanbide sustapena eta lan egonkortasuna ahalbidetzea.	AZPko langileen etengabeko prestakuntza ahalbidetzea.	31. AZPko langileei prestakuntza ikastaroetan parte hartzea ahalbidetzea.	Urtero
		IIPei karrera akademikoari eta etengabeko prestakuntzari buruzko informazioa ematea.	32. IIP berriak hartzeko gida eguneratzea.	Urtero
			33. IIPei karrera akademikoari eta goratzeko dituzten aukerei buruzko informazioa emateko bilerak antolatzea.	Urtero
			34. Ikastaro, mintegi, kongresu eta abarrei buruzko informazioa ematea eta haietara joatea ahalbidetzea.	Urtero
	Lanean giro ona ahalbidetzea.	Ekimen sortzaileak eta lankidetzak ekimenak ahalbidetu eta sustatzea, langileak, irakasleak, eta ikertaldeak harremanetan jar daitezten.	35. IIPei irakaskuntza berritzeko programetan eta DOCENTIAZ programan parte har dezaten sustatzea.	Urtero
			36. Ekimen sortzaileak eta lankidetzak ekimenak ahalbidetu eta sustatzea, langileak, irakasleak, eta ikertaldeak harremanetan jar daitezten.	Urtero
	Fakultatea ingurune osasungarri eta eroso izatea.		37. Espazioak eta altzariak erabiltzaileen beharretara egokitzea.	Urtero

		Ikastegia egokitzen jarraitzea, inguru osasungarri eta erosoagoa izateko.	38. Barnealdeko areto eta bulegoetako aireztapena hobetzea.	22-23 ikasturtea
--	--	---	---	------------------

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
GIZARTEA	Psikologia Fakultatea gizartearen eskura dagoen ezagutza zientifikoa sortzeko eta transferitzeko erreferente bihurtzea.	Dibulgazio zientifikoa sustatzea.	39. Fakultateko irakasleak eta haien produkzio zientifikoa sare sozialetan eta komunikabideetan ikusaraztea.	Urtero
			40. Fakultateko eta bertako langileen ekintzei buruzko informazioa ematea webgunean eta sare sozialetan.	Urtero
			41. Irakasleek Zientzia Astean eta dibulgazio zientifikorako bestelako ekintzetan parte har dezatela sustatzea.	Urtero
			Erakunde eta enpresekiko lankidetzak sustatzea.	42. Erakunde eta enpresekiko lankidetzak sustatzea.
	Euskararekin dugun konpromisoa sendotzea.	Euskararen erabilera sustatzea eremu guztietan.	43. Soziolinguistika klusterrarekin lankidetzan aritzea.	21-22 ikasturtea
			44. IIPei eta AZPko langileei eskaintzen zaizkien euskara ikastaroei buruzko informazioa ematea.	Urtero
			45. Euskara Batzordeak psikologikoa arloko terminoak egunera ditzan sustatzea.	22-23 ikasturtea
	Gure jarduera Agenda 2030en Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea.	Premia bereziak dauzkaten pertsonen arretarako zerbitzuarekin lankidetzan aritzea aktiboki.	46. Premia bereziak dauzkaten pertsonen arretarako zerbitzuarekin lankidetzan aritzea aktiboki.	Urtero
Arreta Psikologikorako Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea.			47. Arreta Psikologikorako Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea haren jarduera hedatzeko.	Urtero

		Jarduera akademikoan genero ikuspegia txerta dadin sustatzea.	48. Berdintasun Batzordeak proposatutako ekintzak bultzatu eta sustatzea.	Urtero
			49. Emakumezko irakasleek Akademe programan parte har dezaten sustatzea.	Urtero

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
GIZARTEA	Gure jarduera Agenda 2030en Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea eta pertsona guztiak gizarteratzearekin eta giza eskubideekin dugun konpromisoa sendotzea.	Garapenerako lankidetzak praktikak mantentzea eta sustatzea.	50. Garapenerako lankidetzak praktikak mantentzea eta sustatzea.	Urtero
		Ingurumenaren kudeaketan etengabeko hobekuntza sustatzea.	51. Fakultateko langileak kontzientziarazte uraren, energiaren eta paperaren kontsumoaren gainean.	21-22 ikasturtea
			52. Fakultateko langile eta ikasleen garraio jasangarria bultzatzea.	Urtero
			53. Fakultateko hondakinen kudeaketa hobetzea.	Urtero
		GJHei eta psikologiak horietan duen zereginari buruz kontzientziaraztea.	54. GJHei eta psikologiak horietan duen zereginari buruzko informazioa ematea.	Urtero
55. GJHak GRALetan eta MALetan sar daitezen bultzatzea.	Urtero			
KUDEAKETA	Sailekin estrategia bateratua sustatzea.	Sailetako zuzendaritzekin batera aztertzea kontratazio beharrak.	56. Sailetako zuzendaritzekin batera aztertzea Fakultateko IIPen plantilla teorikoa.	21-22 ikasturtea
		Sailetako zuzendaritzekin batera aztertzea Fakultateko titulazioen ikasketa planak.	57. Sailetako zuzendaritzekin batera aztertzea Fakultateko titulazioen ikasketa planak.	21-22 ikasturtea
		Sailetako zuzendaritzekin aldizkako bilerak egitea.	58. Sailetako zuzendaritzekin aldizkako bilerak egitea.	Urtero

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
KUDEAKETA	Fakultateko barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzea.	Fakultateko barneko eta kanpoko komunikazioan sare sozialak sartzea.	59. Interes taldeen artean gehien erabiltzen diren sare sozialetan kontuak sortzea eta horiek mantentzea (Instagram, Twitter, Facebook, LinkedIn).	20-21 ikasturtea
		Fakultatearen webgunearen erabilera sustatzea, bi hizkuntzetan, informazio iturri gisa.	60. Webgunea bi hizkuntzetan eguneratuta izatea.	Urtero
			61. Webgunean ikasleentzat, IIPentzat eta AZPko langileentzat informazio erabilgarria sartzea.	Urtero
			62. Webgunea sare sozialekin konektatzea.	Urtero
		Barneko komunikazioa hobetzen jarraitzea.	63. Fakultateko langileen informazio buletinaren formatua eguneratzea eta buletina zabaltzea.	20-21 ikasturtea
			64. Modu eraginkorrean kudeatzea posta elektronikoz bidaltzen den informazioa eta eGelapiren eta EHUdokuren erabilera sustatzea.	Urtero
	Fakultateko titulazioen kudeaketa hobetzea.	Honako prozedura hauek hobetzeko ekintzak gauzatzea: ikasketa planak, irakaskuntza plangintza, koordinazioa, irakaskuntza gidak, mugikortasuna, kanpoko praktikak, GRAL eta MAL.	65. Titulazioen koordinazio bilerak egitea maila guztietan eta ikasleen Kontseiluarekin.	Hiru hilean behin
			66. Idazkaritzako langileen zereginen banaketa berrikustea.	20-21 ikasturtea
			67. Ikastegiko batzordeen osaera eta zereginak berrikustea.	20-21 ikasturtea

ARDATZ A	HELBURU ESTRATEGIKOA	EKINTZA ESTRATEGIKOA	KUDEAKETA PLANeko EKINTZAK	EGITEKO DATA
KUDEAKETA	Fakultateko titulazioen kudeaketa hobetzea.	Ikasle kopuruaren eta sortzen ari diren irakaskuntza metodologia berrien arabera egokitutako irakaskuntzarako instalazioak eta ekipamenduak izatea.	68. Espazio, instalazio eta ekipamendu beharrak aztertzea.	Urtero
			69. Campuseko beste ikastegi batzuekin koordinatzea erabilera komuneko espazioen erabilera (I. Barriola, E. Zipitria, eta C. Santamaría eraikinak).	Hiru hilean behin
	Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema mantentzea eta hobetzea.	Ikastegiaren kudeaketan eta Fakultateko proiektuetan kolektibo guztiek parte har dezaten sustatzea eta inplikazio maila areagotzea.	70. Kudeaketaren autoebaluazioa egitea.	Urtero
			71. "Beste pertsona batzuk" sartzea batzorde eta lantaldeetan, eta aldian behin berriro daitezten sustatzea.	Urtero
	Fakultatearen eta UPV/EHUko zerbitzu eta gobernu organoen eta Psikologikoarekin lotutako kanpoko erakundeen arteko harremanak mantentzea.	Fakultateak UPV/EHUko kudeaketa organoetan duen presentzia mantentzea eta sustatzea.	72. UPV/EHUko batzordeetan kudeaketa organoetan langileek parte har dezaten sustatzea.	Urtero
			73. Dekanotzak aktiboki parte hartzen jarraitzea Unibertsitateko zerbitzu eta gobernu organoekin egiten diren bileretan.	Urtero

		Psikologia Dekanoen Konferentziarekin (CDPUE) eta Psikologiako elkargo ofizialekin (PEOak) ditugun harremanak mantentzea.	74. Dekanotzak aktiboki parte hartzen jarraitzea Psikologia Dekanoen Konferentziarekiko (CDPUE) bileretan eta PEOekin aldi behingo bilerak egitea.	Urtero
--	--	---	--	--------

7. AMIA Kudeaketa Planeko ekintzekin gurutzatzea

	AHULEZIAK	EKINTZAK
Prestakuntza	1. Gradu eta Masterreko zenbait ikasketa plan berrikusi eta eguneratu egin behar dira.	1, 2, 3, 4
	2. Masterretan onartuak izateko profilak berrikusi egin behar dira.	4
	3. Gradu titulazio bakarra daukagu.	6, 7
	4. Metodologia aktiboen erabilera hobetu daiteke.	13, 14
	5. Koordinazioa hobetu maila guztietan.	65
	6. Etengabeko ebaluazio sistema hobetu daiteke.	13, 14, 65
	7. Ingeleseko irakasgai gutxi eskaintzen dira.	19
	8. Gradu praktiketarako plaza kopurua ez da egonkorra.	10, 11, 12
	9. Master eta berezko tituluetakoko praktiketarako gero eta plaza gehiago behar dira.	10, 11, 12
	10. Berezko tituluen eta prestakuntza osagarriaren eskaintza txikia da.	9, 26
	11. Mugikortasun hitzarmenen kalitatea hobetu daiteke.	17
	12. Fakultatean sartu berri diren ikasleek graduari buruzko duten orientabidea eta igurikimenak hobetu egin behar dira.	20, 21
	13. Hautazko irakasgai gehiegi daude eta horrek irakaskuntza eskaintzaren egonkortasunari eragiten dio.	1, 2, 3
	14. Ikasleen artean igurikimen faltsuak (praktikei, masterretarako sarbideari eta laneratzeari dagokienez) sortzen dituzten ibilbide ez ofizialak (minorrak) ditugu.	1, 2, 3
	15. Ikasle askok ez du bakarkako lana egiteko (adibidez, GRAL, Gradu Amaierako Lana) beharrezkoa den gaitasunik.	3, 65
P e	16. Gutxi aintzatesten da IIPen eta AZPko langileen lana.	28, 29, 30
	17. Aukera gutxi daude langileen arteko interakziorako.	36

	18. IIP berriek graduaren eta Unibertsitatearen funtzionamenduari buruzko informazioa behar dute, bai eta lan sustapenerako aukerei buruzkoa ere.	32, 33, 34, 35
	19. IIPek etengabe prestatu eta eguneratu behar dute irakaskuntzarako tresnetan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKTak).	14, 34
Gizartea	20. Fakultatean sortzen den ezagutzari ematen zaion ikusgarritasuna hobetu daiteke eta gehiago hedatu.	39, 40, 41, 42
	21. Ikasle egresatuekiko harremana txikia da.	23, 27
	22. Psikologiako elkargo ofizialekiko eta kanpoko profesionalekiko harremana txikia da.	23, 42
	23. Ikasleek eta langileek kontzientzia gutxi dute Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz (GJH).	48tik 55era
	24. Fakultateko ingurumen kudeaketa hobetu daiteke.	51, 52, 53
Kudeaketa	25. Koordinazio estrategikoa behar da sailen eta Dekanotzaren artean.	56, 57, 58
	26. Barneko komunikazioa hobetu daiteke.	58, 60, 61, 63, 64
	27. Ikasleen kontseiluarekiko komunikazioa hobetu daiteke.	65
	28. Ikasleekin komunikatzeko kanal hobeagoak aurkitu behar dira.	59, 60, 61, 62, 65
	29. Webgunea berritu egin behar da eta edukia sailekin koordinatu.	58, 60, 62
	30. Irakaskuntzarako graduako eta graduondoko ikasle kopurua aintzat hartuta Barriola ikasgelategiarekiko mendekotasun handia da, Fakultatean ikasgela gutxi daudelako.	68, 69
	31. Praktiken administrazio kudeaketa hobetu daiteke.	66, 71
	32. Hiru master ofizial gehitu direnez, kudeaketa lana nabarmen handitu da.	66, 67
	33. Kudeaketa akademikoko prozedurak berrikusi egin behar dira.	66, 67, 70
	34. Ikasketa plana konplexua da eta horrek zaindu egiten du ordutegiak antolatzea.	1, 3

	INDARRAK	EKINTZAK
Prestakuntza	1. Psikologiako Graduaren eta Osasun Psikologia Orokorraren eskaintza erabat elebiduna da.	
	2. Psikologiako hainbat jakintza arlotan esperientzia zabala eta eguneratua duten IIPak.	31, 32, 33
	3. Psikologia arloan ezagutza sortzen duten eta seiurteko ugari dituzten IIPak.	31, 32, 33
	4. Irakaskuntzaren kalitatearekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa eta irakaskuntzari laguntzeko plataformen erabilera orokorra.	32, 33
	5. Irakaskuntza koordinatzeko egitura.	63, 68
	6. Errendimendu, arrakasta eta ebaluazio tasak.	68

	7. Ikasleek oso balorazio ona egiten dute IIPen irakaslanaz.	68
	8. Hirugarren hizkuntzan irakasteko IIP egiaztatuen kopuru handia da.	19
	9. English Friendly Course irakasgaien kopurua handitzen ari da.	19
	10. Nazioko eta nazioarteko mugikortasuna handia da (kanpotik datozenena zein kanpora doazenena).	
	11. Praktika zentro ugari daude eta kalitate onekoak.	10
	12. Praktika zentroek ongi baloratzen dute graduako eta graduondoko ikasleen prestakuntza.	21, 42
Pertsonak	13. Langile gehienen inplikazioa eta lankidetzaren handia da.	71, 72
	14. IIPek presentzia handia dute komunikabideetan.	29, 59, 60, 62
	15. IIP eta AZPko langile berriei harrera egiteko plana.	32
Gizartertea	16. Ikerketa eta transferentzia proiektuen kopurua handia da.	39, 40, 41
	17. Garapenerako lankidetzaren praktikak.	50
	18. Gizarte konpromisoa.	41etik 54ra
	19. Fakultatearen irudi ona.	39, 40, 41, 42
Kudeaketa	20. Graduondoko tituluen kalitatearen kudeaketan inplikaturako batzorde akademikoak.	70, 71
	21. Psikoplana.	3
	22. Titulazio guztien kudeaketaren kalitatea bermatzen duen erakunde akreditazioa.	70
	23. GPUntis eta WebUntis erabiltzen ditugu ordutegiak eta espazioak antolatzeko.	66, 68
	24. Fakultateko geletan eta instalazioetan ekipamendu egokia dugu.	68
	25. Fakultatean baliabide informatikoen hornidura egokia da.	68
	26. "Esker on, iradokizun, kexa eta erreklamazioen" kudeaketa (EIKE).	70

MEHATXUAK	ERINTZAK
1. Beste unibertsitate, fakultate eta titulazio batzuekin lehiatu beharra.	1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 74
10. Beste unibertsitate eta erakunde pribatu batzuek graduondoko ikasketen eskaintza zabala dute.	1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 74
11. Testuingurua aldakorra da, eta eragile berriak daude unibertsitateko hezkuntza birtualaren esparruan eta ingelesez.	1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 74
12. Osasun Psikologia Orokorrean (OPO) prestakuntza behar duten eremuen kopurua gero eta handiagoa da, Psikologiako Graduaren eta beste master ofizial batzuen kaltetan.	8, 9, 10, 11, 74

13. Unibertsitate pribatuetan ordaindu egiten dira praktikak eta motibazio gutxi dago erakunde publikoetako praktiketako tutore izateko.	10, 11, 12, 74
14. Psikologoaren lana ez dago araututa eta intrusismo laborala dago.	39, 40, 41, 42, 74
15. Irakaskuntzarako campuseko espazio komun en lehia gero eta handiagoa da.	69, 73
16. Fakultatearen ohiko finantzaketa eta Campuseko baliabideak murriztu egin dira, krisi ekonomikoa dela eta.	72, 73
17. Ikasgelaz kanpoko irakaskuntza ematera behartzen duten eta epe ertainean kudeaketa hausnartua eragozten duten larrialdi egoerak egon daitezke.	13, 14, 37, 38, 58, 68, 73, 74

AUKERAK	EKINTZAK
15. Eskari handia duen Psikologiako Gradu erakargarria dugu.	
16. Osasun Psikologia Orokorreko mastererako eskaria handia da.	
17. Gradu eta graduondoko lanbide-profil berriak eskatzea, gidalerro profesional arautuak dituztenak.	1, 2, 4, 5, 6, 7
18. Psikologiaren jarduketa esparru berriak.	1, 4, 7, 8
19. Unibasq-en nazioartekotzearen aipamena lortzeko aukera dugu.	15etik 19ra
20. Epe ertain eta luzera osasun mentalen arloko profesionalen beharra dago, osasun larrialdiko egoerarekin lotutako arazoei erantzuteko.	47, 74
21. UPV/EHUko webgunea berritzea.	60
22. Ikasleek gero eta prestakuntza hobea dute hizkuntza ez ofizialetan.	19
23. Gero eta mugikortasun programa eta ekintza gehiago daude, bai ikasteko, bai praktikak egiteko.	15
24. ENLIGHT partzuergoak baterako graduak eskaintzen ditu Europako unibertsitateekin.	17
25. Ikasleak, IIPak eta AZPko langileak gero eta kontzientziatuago daude GJHeKin.	54, 55
26. Osasun larrialdiaren ondorioz, aldi normaletan erabiltzen jarraitu ahal izango diren tresnak eta ekipamenduak egokitu behar izan dira.	14, 31, 68
27. Osasun larrialdiak agerian jarri du Psikologiaren eta ongizate psikologiko eta psikosozialaren garrantzia.	39, 40, 41, 47
28. Osasun arlorako finantzaketa (Europakoa, estatukoa eta autonomia mailakoa) areagotzeko aukera dago.	6, 7, 26, 27, 73

8. Hausnarketa estrategikorako taldea

Dekanotza Taldea

- Dekanoa: M^a Gabriela Chotro Lerda
- Idazkari akademikoa: Naiara Arriola Garikano
- Graduko Ikasketa eta Kalitate dekanordea: Eneritz Gómez Lázaro
- Akademia Antolakuntzako dekanordea: Izarne Lizaso Elgarresta
- Ikasle eta Komunikazio dekanordea: Alaitz Aizpurua Sáenz
- Graduondo eta Praktiken dekanordea: Edurne Maiz Aldalur
- Mugikortasun dekanordea: Edurne Elgorriaga Astondo
- Administrazioa: M^a Dolores Alonso Crespo
- Ikastegiko teknikaria: Arantza González Larraina

Kalitate Batzordea

- Dekanotza Taldea
- Sailetako zuzendariak
 - Izaskun Ibabe Erostarbe
 - Daniel Hermosilla Pérez
 - Eduardo Fano Ardanaz
 - Igor Esnaola Echaniz
 - Miren Igone Zabala Unzalu
- Psikologiako Graduko koordinatzailea
 - Juan Manuel Machimbarrena Garagorri
- Fakultateko master ofizialetako koordinatzaileak:
 - Andone Sistiaga Berrondo
 - Ainara Arnoso Martínez
 - M^a Lorena Gil de Montes Echaide
 - Manuel Carreiras Valiña
- Psikologiako Graduko mailetako koordinatzaileak:
 - Nagore Asla Alcibar
 - Ainara Andiarena Villaverde
 - Eider Pascual Sagastizabal
 - Imanol Ulacia Aramendi
- Ikasleak:
 - Iker Callado Iza
 - Garai Zabalza Monasterio

